7

Gizarte Ekintza

Konpromisoa herritarrekin

Gure ekarpena komunitateari 413-1

EROSKIn, sortu ginenetik, gizarte ekintzan dihardugu, modu batera baino gehiagotara, gizarte bidezkoago eta solidarioago bat posible egiten laguntzeko.

Guretzat, elkartasuna funtsezko printzipio bat da, gure jardueraren oinarria. Hori dela eta, EROSKIren etekinen %10 EROSKI Fundaziora joaten da urtero, gizarte arloko jarduerak gauzatzeko. Horrenbestez, ekimen propioz zein hirugarrenekin egindako hitzarmenen bidez bultzatzen dugu gure ingurunearen garapen sozial eta kulturala. Gainera, EROSKIn laguntza ekonomikoak ematen ditugu helburu sozialetarako; 2018an, 8 milioi euro inguru.

EROSKI osatzen dugunok harro gaude 2018an lankidetzan jardun garelako gizarte ekintzan adierazgarriak diren elkarte, GKE eta erakundeekin. Gainera, hamabost kanpaina baino gehiago egin ditugu kontsumitzaileari protagonismoa emanez eta inplikatuz.

2018an, guztira, 8.500.199 euro eman genituen gizarte ekintzako honako eremu hauetan:

- Kultura, aisia eta ingurune lokala **418.306 €**
- Nazioarteko lankidetza **283.668 €**
- Beste elkartasun kanpaina batzuk **253.586 €**
- Elikadura arloko elkartasuna **6.507.679 €**
- Bestelako gaitasunak edo
- Familiei laguntzak **863.862€**

ONCE-Galicia Elkartasun Saria VEGALSA-EROSKIrentzat

ONCE-Galicia Elkartasun Saria eman digute 2018ko ekitaldian, enpresen kategorian; horrekin aitortu digute gizartearekin eta ingurunearekin konpromisoa dugula eta elikadura eta ohitura osasungarriak bultzatu ditugula azken urteetan.

Ekimen solidarioak 413-1

Nazioarteko lankidetza

EROSKI sozialki arduratsua den erakundea denez, munduko desberdintasunekiko eta beharrekiko sentsibilizatuta gaude.

Jostailuak biltzeko kanpaina Gurutze Gorriarekin

Abenduko bi egunetan, gerra jostailuak eta sexistak ez diren jostailuak biltzeko kanpainan parte hartu ahal izan zuten gure bezeroek. Zaurgarritasun sozial eta ekonomikoaren arriskuan bizi direlako jostailuak erosi ezin dituzten familietako haurren premiak estaltzeko erabili dira dohaintzak guztiak.

Indonesiako tsunamia dela-eta egindako larrialdi kanpaina

EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari esker, 30.000 euro bildu genituen urrian Indonesiako tsunamian pairatu zutenen alde; UNICEFekin koordinatutako kanpaina batean banatu zen laguntza: edateko ura helarazteko eta saneamendurako erabili zen, izurriterik sor ez zedin; horrez gain, osasun arreta eta nutrizio egokia emateko erabili zen.

Produktuak emateko programa

Elikagaiak ez diren produktuak (jostailuak, oinetakoak, arropa, ikasmateriala eta produktu optikoak, besteak beste) ematen dizkiegu Latinoamerikako haurrei, giza garapen jasangarrirako eta nazioarteko lankidetzarako lan egiten duen Munduko Haurren Federazioaren bitartez. 2018an, 169.200 eurokoak izan ziren dohaintzak.

Borondatezko lan korporatiboa

EROSKIren kooperazio-eta elkartasun-printzipioei jarraituz, hamar urte baino gehiago dira **MUNDUKIDE**rekin, Hirugarren Munduko herri behartsuen garapena sustatzen duen el kartearekin, elkarlanean hasi ginenetik. Proiektu horiei buruzko informazioa zabaltzen laguntzen dugu, EROSKI CONSUMER aldizkariaren eta www.consumer.es weggunearen bidez. Era berean, Gizarte eraldaketarako borondatezko lan korporatiboko programan parte har dezakegu. MUNDUKIDEk, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikerketa-zentroak eta Brasilgo Lurrik Gabeko Landa Langileen Mugimenduak (MST) antolatzen dute programa hori. Lau EROSKI-langile borondatezkoak izan dira eta banaketari eta merkaturatzeari buruz dakitena erabiltzen dute Paraná Estatutako erdialdeko eskualdearen garapen

Elkartasun Izarra

Laugarren urtez jarraian, EROSKIk Elkartasun Izarraren kanpaina egin du Eguberrietan. EROSKIren eta VEGALSA-EROSKIren denden bezeroei esker, 2018an, 63.000 euro batzea lortu genuen izarrak salduta. Haurrei laguntzeko erabili da, UNICEFen eta EROSKI Fundazioaren bitartez; izan ere, kontsumitzaileek kausa horri eman zioten bozka gehien.

Elikadura arloko elkartasuna

Gure ingurunean oinarrizko premiak estaltzeko dauden arazoez kontsumitzaileak sentsibilizatzeko helburua dela medio, elikadura arloko elkartasun ekintzak antolatu ditugu eta gure bezeroei kausa horretan inplikatzeko modua eman.

Elkartasun kanpainak kontsumitzaileen inplikazioarekin

2018an, 22 urte bete dira Espainiako Elikagaien Bankuen Federazioarekin (FESBAL) elkarlanean hasi ginela. Urtero, bi kanpaina solidario antolatzen ditugu gure dendetan, haietan biltzen ditugun elikagaiak federazio horri emateko: "**Kilo Operazioa**", ekainean, eta "**Elikagaien Bilketa Handia**", azaroan. Elikagai horiek erkidego bakoitzean zailtasun ekonomikoak dituzten eta gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat dira. Aurten, aurrez existitzen ziren bi modalitateetan lan egiten jarraitu dugu: produktuen bilketa fisiko tradizionalean eta txartelen bidezko bilketan. Txartelei esker, elikagaien bankuek unean-unean behar dituzten produktuak jaso ditzakete. Aurten berriz egin dugu "El Zampakilos solidario" kanpaina VEGALSA-EROSKIn.

Gainera, CAPRABOk eta Gurutze Gorriak bat egin dute, seigarren urtez jarraian, "**Haurrik ez otordurik gabe!**" kanpainan, haurren elikaduran laguntzeko; ekimen horren bidez, dirua biltzen dugu gizarte bazterketa jasateko arriskuan direnen elikadura bekak ordaintzen laguntzeko. 2018an, 12 elikadura beka lortu dira.

Elkartasun txartela

2009tik, EROSKIn, Bizkaiko Caritasen eta Laboral Kutxan elikagai txartelak ematen hasi ginen Bizkaiko Caritasek hartutako pertsonentzat, eta gure saltokietan truka ditzakete. Elkartasun ekimen hori martxan jartzeko azpiegitura ipini ez ezik, EROSKI Fundazioak eta Laboral Kutxak diru ekarpen gehigarri bat egiten dugu Bizkaiko Caritasek proiektu horretan jartzen dituen baliabideez gain. VEGALSA-EROSKIn elikagai txartelak ematen ditugu Galiziako Xuntako emergentzia sozialaren programarako.

Oinarrizko beharrak asetzeko aukera ematea da helburua, baina ez asistentziaren ikuspegitik, baizik eta bazterketa egoeran eta gizarte bazterketako arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko prozesu zabalagoetan kokatutako ikuspegi integratzaileetatik. Hori dela eta, 2018an, elkartasun txartel birkargagarri bat inplementatzen jarraitu dugu. Horren bitartez, orain arteko paperezko txartelak ordezkatu ditugu, eta, horri esker, ekimena hedatu ahal izan dugu Aragoira, Balearretara, Galiziara eta EAEra. Sistema horretara elkarte gehiago batu dira, hala nola Gurutze Gorria, bai eta Gasteizko eta Zaragozako udalak ere. Horrela, duintasun handiagoa hartzen du familientzako tresna horrek, modernoa eta erabilerrazagoa izateaz gain.

1.523 tona produktu eman dira 2018an Kilo Operazioa eta Elikagaien Bilketa Handiaren esker

"Zero Hondakin" programa

EROSKIn, jarraitzen dugu janaririk ez alferrik galtzeko borrokan, nola eta jarduera protokolo bat artikulatuta ziurtatzeko emandako elikagai guztiak freskoak eta jateko moduan daudela. Hala, gure bezeroekin freskotasun maximoaren konpromisoa eta ontziaren itxura onarena betetzen ditugu. Hotz katea behar bezala mantentzen dela ziurtatzen dugu dohaintza hartzen duten erakundeen instalazioetan, eta berme berak zaintzen ditugu haien garraioan, elikagaia kontsumitua den arte.

Produktu horiek hartzaileari esleitzeko eta emateko irizpidea Espainia osoan gurekin lankidetza hitzarmena sinatu duten ehun gizarte erakunderen baino gehiagoren bidez gauzatzen da.

Programaren beste helburu bat kontsumo arduratsua sustatzea da. Horretarako, elikagaien dohaintzarekin batera, kontsumitzaileak kontzientziatzeko kanpainak egiten ditugu, informazioa zein prestakuntza emateko.

EROSKI CONSUMERen bitartez, EROSKIk ezagutzak, baliabideak eta tresna praktikoak ipintzen ditu kontsumitzaileen esku, erosketa arrazionalizatzeko, ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta etxean elikagaien zarrastelkeria ahalik eta txikiena izateko.

"Zero Hondakin" programan, EROSKIk gizarte erakunde askorekin dihardu, hala nola elikagaien bankuekin eta Caritasekin. 2018an, EROSKI eta haren bezeroek 4.928 tona janari baino gehiago eman dizkiete behar gehiena zuten kolektiboei. 9.747 dieta pertsonalen parekoa da dohaintza kopuru hori.

EROSKI Kooperatiba Elkarteak egin duen lana aitortu izan du Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, eta Urrezko Galburuaren saria eman izan dio; hain zuzen, hori da Federazoaren saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmendu diren erakundeei ematen diena.

+4.928 tona
elikagairen donazioa zero hondakin programaren bidez

9.747 dieta
pertsonalen donazioa

Bat egin dugu Elikagaiak Alferrik Galtzearen Aurkako lehenbiziko Astearekin

2018an, Elikagaiak Alferrik Galtzearen Aurkako Astearekin bat egin dugu. Kontsumo Handiko Enpresen Elkarteak koordinatzen du ekimen hori, eta lehenengoz egingo dute Espainian. Helburua da kontsumitzailea kontzientziatzea, bultzatzea eta motibatzea eta zenbait tresna erakustea zaborretara botatzen den janari kopurua gutxitzeko. Tailerrak egin ditugu gure dendetan, lehiaketak eta on line zozketak, eta jardunbide onak partekatu dira kontsumitzaileak kontzientziatzeko janaria ez dela alferrik galdu behar.

#GoserikEz helburua

EROSKIk bat egin du #GoserikEz kanpainarekin. Nazio Batuen Erakundeak jarri du martxan, Elikaduraren eta Nekazaritzaren eremuetan, Elikagaien Mundu Eguna dela eta, zeina urriaren 16an izango baita.

GIHen 2. zenbakian sartzen da ekimen hori, eta asmoa da gizartea kontzientziatzea goserik gabeko mundu bat posible dela 2030erako. Horretarako, ezinbestekoa da gutako bakoitza inplikatzea, ez bakarrik gobernuak eta munduko erakunde handiak.

Bestelako gaitasunak dituzten edo gaixorik diren pertsonekin lankidetzan aritzea

EROSKIn, ondo dakigu egunero zer erronka dituzten bestelako gaitasunak dituzten edo gaixotasun baten ondoriozko behar bereziak dituzten pertsonek. Hori dela eta, lankidetza estua daukagu pertsona horien ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko lan egiten duten erakundeekin.

Arlo horretako proiektuak eta ekimenak babestea ere funtsezkoa da gure gizarte ekintzan, eta, alde horretatik, hainbat lankidetza hitzarmen sinatu ditugu desgaitasunen eta zenbait gaixotasunen inguruan diharduten gizarte erakundeekin. 2018an, 100.000 euro baino gehiagoko ekarpen ekonomikoak egin genituen babesletza jardueran, eta estatu mailako erreferentziazko elkarteen zein tokiko kolektiboei laguntzen dieten elkarteen artean banatu genituen.

Kosta Traila, diabetesa eta giltzurrunetako gaixotasunak dituztenen alde

Aurten, 4.600 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute Kosta Trailen 13. lasterketan; hori dela eta, FORUM SPORTek, Salomonek eta Laboral Kutxak 14.400 euro eman dizkiote diabetesaren aurkako Bizkaiko elkarteari eta giltzurrunetako gaixotasunen aurkako elkarteari. Diru hori diabetesa dutenen alde erabiliko da, kirola egiteak gaixotasuna egunerokoan kudeatzen laguntzen duela era praktikoan ikas dezaten, eta, orobat, giltzurrunetako gaitzak dituztenen alde.

WOP Fundazioa eta EROSKI elkarrekin gaixotasun neurodegeneratiboak sendatzearen alde

EROSKIk eta The Walk On Project fundazioak duten lankidetzaren medioz, konpromisoa hartu genuen bezeroentzat zenbait jarduera antolatzeko; bertan parte hartuta, ikerkuntza minutuak batu ziren gaixotasun neurodegeneratiboei sendabidea bilatzeko. Horrela lortu zituzten 51.096 minutu. Bezeroen inplikazioari esker, EROSKIk 30.658 euroko txeke bat eman ahal izan zion WOP fundazioari.

VEGALSA-EROSKI gaixotasun arraroak eta kronikoak dituztenen alde

Bat egin dugu gaixotasun arraroen eta kronikoen Galiziako federazioaren "Zuri esker, magikoa izan daiteke" kanpainarekin, Galizian era horretako gaixotasunak dituztenen eta haien senitartekoen kolektiboaren laguntza-beharrei erantzuten laguntzeko. Kanpaina horretan, gure bezeroek gozokizko makila solidario bat erosi ahal izan dute 15 dendatan, euro bakarraren truke. VEGALSA-EROSKIk bildutakoaren %6 gehitu dio guztizkoari, eta, hala, 1.900 euro lortu dira.

Bularreko minbiziaren aurkako borroka

EROSKIk beste urte batez parte hartu du Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkarteak emakumeentzat antolatzen dituen zenbait lasterketatan. Gainera, laugarren urtez jarraian, VEGALSA-EROSKIn "Irabazteko prest" kanpaina egin dugu elkarte horrentzat dirua lortzeko, eta informazio liburuxkak banatu ditugu bularreko minbizia hauteman eta hura garatzeko arriskua murrizteko ohituren inguruan.

Larruazaleko minbiziari buruz sentsibilizatzeko kanpaina

Urtero, Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkartearekin jarduten gara, larruazaleko minbiziari buruz sentsibilizatzeko. Kanpainan zehar, mahaiak jarri ditugu gure supermerkatuetan, eguzkia hartzearen inguruan aholkuak emateko, eta larruazala nola ikuskatu behar den erakutsi eta alarma zantzuak hautemateko. Gainera, informazioa emateko hitzaldiak eman dizkiegu CAPRABOko langileei.

Gure laguntza hartzen duten elkarteetako batzuk:

ACAMBI - Bilboko Bularreko Minbiziaren Elkartea
ADEMBI - Bizkaiko Esklerosi Anizkoitzaren Elkartea
AECC - Minbiziaren Kontrako Espainiako Elkartea
AEFAT - Familia Ataxia Telangiectasia Espainiako Elkartea
ALCER - Giltzurrunetako Gaixotasunen Aurkako Elkartea
ANADI - Nafarroako Diabetesaren Elkartea
ASPANAFOHA - Arabako Minbizidun Haurren Guraso Elkartea
ASPANOGI - Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkartea
ASVIDIA - Bizkaiko Diabetikoen Elkartea
BENE - Gaixotasun neurologikoak dituzten pertsonen eta senideen Bizkaiko elkartea
COCEMFE - Desgaitasun Fisikoa eta Organikoa duten Pertsonen Espainiako Konfederazioa
EM Euskadi - Euskadi - Eugenia Epalza Esklerosi Anizkoitzaren Euskal Fundazioa
EUSKAL GORRAK - Pertsona Gorren Elkarteen Euskal Federazioa
FEDE - Espainiako Diabetikoen Federazioa
FEKOOR - Gutxitasun Fisikoa edota Organikoa duten Bizkaiko Pertsonen Federazio Koordinatzailea
FEGEREC - Gaixotasun Arraroak eta Kronikoak dituztenen aldeko Galiziako Federazioa
FEM - Esklerosi Anizkoitzaren Fundazioa
ONCE EUSKADI- Itsuen eta ikusteko desgaitasuna dutenen bizi-kalitatea hobetzeko helburua duen irabazi-asmorik gabeko korporazioa
WOP – Walk On Project

Beste elkartasun kanpaina batzuk

Elikadura arloko elkartasunaz gain, beste kanpaina batzuk ere egiten ditugu: gizarte egoera ahulean dauden kolektiboei laguntzen diegu, eta ingurumenaren aldeko konpromisoa sustatzen dugu kontsumo ohituren bitartez baliabide naturalak zainduta.

FORUM SPORT kirol materialaren dohaintzak

FORUM SPORTetik 179 oinetako pare eman dizkiogu Bizkaiko Gurutze Gorriari, bere proiektuen barruan zaurgarritasunean direnen artean banatzeko. Horrez gain, 2018an, 8.943 kiloren kirol materiala eman diogu Kooperari, 22.219 euroko balioa zuena. Caritasen erabiltzaileei eta Kooperaren dendei eman diegu material hori, bigarren eskuko objektu gisa, edo birziklatzera eta balorizazio energetikoa egitera bideratu dugu, zabor gisa behar bezala kudeatua izateko.

VEGALSA-EROSKIren errezeta liburua Gurutze Gorriaren alde

Plater osasungarriak merke prestatzeko errezeta bilduma baten 15.000 ale salduta (*Hoy como en casa: recetas saludables y económicas elaboradas por los mejores chefs de Galicia*), 30.000 euro bildu ditugu, eta Gurutze Gorriak gizarteratzeko proiektuetarako erabiliko du Galizian. Bi entitateen lankidetza ekimen horretan 20 galiziar sukaldarik parte hartu dute, eta Galiziako Autonomia Erkidegoko Autoservicios Familian, EROSKI hipermerkatuetan eta EROSKI Center supermerkatuetan gauzatu dute.

Larrialdi kanpaina Mallorcako uholdeengatik

Mallorcako Sant Llorenç udalerriko uholde izugarriak direla eta, Espainia mailako elkartasun kanpaina bat egin genuen, eta 140.000 euro batu genituen EROSKIren eta haren bezeroen elkartasunari eskerrak. Dirua Sant Llorençeko agintarien bitartez bideratu da, eta osorik joan da uholdeen ondorioak jasan dituzten familietara.

Familiei laguntzea

EROSKIk familia ugariei laguntzeko lankidetza hitzarmenak ditu hainbat erakunderekin, hala nola HIRUKI-DErekin, Fanoc-ekin eta Familia XLrekin. Gainera, 2012az geroztik, CAPRABOn, familia horien premia berezien jakinaren gainean, abantaila bereziak eskaintzen ditugu "Oro" bezeroaren izaeraren (eta Mi Club CAPRABO "Oro" txartelaren) bidez eta haren onura gehigarri guztien bidez. Orobat, familia horiek euren erosketen %5 eurotan jasotzeko abantaila dute; zenbateko hori txartelaren saldoan sartzen da. Hala, 2018an, **13.292 familia ugarik 804.694 euro aurreztu dituzte.**

Horrez gain, badago familiei laguntzeko beste programa bat: "Ongi etorri, haurtxoa". Iaz, programa horretan, **1.358.000 saskitxo eman genituen**, baita haurtxoaren lehen urtean beharrezkoak diren produktuak lortzeko deskontuak eta promozioak ere. Programa hori osatzeko, "Ongi etorri, emagina" *on line* tresna dago. Haren bidez, gurasoek erantzun guztiak aurkituko dituzte haurdunaldian, erditzean eta haurtxoaren lehen urteetan sor daitezkeen galderak eta zalantzak argitzeko. Ekimen horrek zenbait talderen laguntza izan du, hala nola Emaginen Elkarteen Espainiako Federazioa, Espainiako Emaginen Elkartea eta J. Mateu Sancho pediatra. Dagoeneko, 120.505 pertsonak bisitatu dute webgunea, eta 358.175 web-orri ikusi dituzte.

VEGALSA-EROSKIn, familiei laguntzeko beste pauso bat eman dugu, 2016an Galiziako Xuntaren "Tarxeta Benvida" programara atxikita. Horri esker, Galiziako EROSKI Center eta Familia establezimenduen eta EROSKI hipermerkatuen sarean erosketak egitean txartela aurkezten duten pertsonek %2,5eko zuzeneko deskontua dute. 2018an, 59.168 euro transferitu zaizkie familiei ekimen horren bitartez.

Kultura, aisia eta tokiko ingurunea sustatzea

Ekimen lokalagoak sustatzearekin, EROSKIk gure sare komertzialaren hurbileko jendearen ongizatean lagundu nahi du, eta balioan jarri hurbilagokoak diren kultura eta tradizioak.

Tokian tokiko hizkuntzen sustapena eta hedapena

EROSKIn, tokiko hizkuntzak gure inguruko komunitateen kultura ondarearen funtsezko atalak direla uste dugu, eta, hortaz, haiek sustatzeko eta hedatzeko lan egiten dugu etengabe.

Euskararen kasuan, Elhuyar Fundazioarekin batera egiten ari garen ekimena da aipatzekoa; izan ere, hizkuntza horretako bilatzaile bat garatzen ari gara. Euskal Herriko Unibertsitateak ere parte hartu du I+Gko proiektu horretan, eta gaur egungoak baino askoz bilatzaile aurreratuagoa izango da. Bilatzaile hori gure *on line* plataforman integratuz, EROSKI CONSUMER aldizkariaren dokumentuetan nabigatzea errazagoa eta hobea izatea lortu dugu. Euskarari dagokionez, nabarmendu behar da gure hizkuntzaren inguruan egiten diren ekitaldi handietan parte hartzen dugula urtero; besteak beste, babesletza jarduerak egiten ditugu urteko ekitaldi garrantzitsuenean, Durangoko Azokan, alegia. Halaber, gure Elikadura Eskolaren bidez, euskararen jai nagusietan hartzen dugu parte. Honako hauek dira ekitaldiok: Herri Urrats, Ibilaldia, Araba Euskaraz, Kilometroak, Nafarroa Oinez eta Euskal Eskola Publikoaren jaia. Hala, 10.824 lagunek parte hartu zuten EROSKI Fundazioak Elikadura Eskolak bertan antolaturiko ekitaldietan.

Galiziako kultura eta hizkuntza ere balioesten ditugu. Horretarako, Galiziako gizartearekin lotura estua duten ekimen guztiekin egiten dugu bat. Esate baterako, aurreko ekitaldietan bezala, Día das Letras Galegas ekimena babestu genuen 2018an ere.

Ekimen horiez guztiez gain, ahalegin handia egiten dugu EROSKI CONSUMER aldizkaria gaztelaniaz, euskaraz, galizieraz eta katalanez eskaintzeko.

Aisia eta kultura

Orobat, kultura kontsumitzaileei hurbiltzen saiatzen gara askotariko babesletza jardueren bidez. Esaterako, Elorrion, gure egoitza nagusia dagoen herrian, urtero egiten den Musikaire kultura jaialdia babesten dugu.

Beste maila batean, kirolak gaur egungo gizartean eta bizimodu osasungarria izateko zer-nolako garrantzia duen jakinda, gure ingurune hurbilenean antolatzen diren kirol jarduerak ere babesten ditugu. Gainera, CAPRABOSport programaren bidez, 224.000 euro banatu genituen amateurren 118 kluben artean, zertarako eta ohitura osasungarriak eta kirol jarduera sustatzeko.

Euskadin, hainbat kirol jardueratan lagundu dugu, hala nola Santurtziko Herri Krosean eta estropadan. Orobat, FORUM SPORTek, urtero bezala, Kosta Trail mendi lasterketa antolatu zuen Bizkaian. Lasterketa horrek alderdi solidarioa du, eta, besteak beste, ibilaldiak ditu familientzat eta zeharkaldien zaleentzat.